

FUTBOLA

Atotxari agur hunkigarria ematera

Hiru ordu pasako ikuskizuna bizi ahal izango da gaur

Duela gutxi Alberto Gorrizek jaso zuen agurra Atotxan eta gaur, berriz, zelaiak berak jasoko du omenaldia. Hiru ordutan zehar ikuskizun anitz izango da, horien artean Realaren eta euskal selekzioaren arteko norgehiagoka. Realeko eta Athleticen beterranoek ere jokatu dute partidu bat.

ENEKOITZ ESNAOLA / DONOSTIA

Arratsaldeko 7.30etan hasiko da jaia, Real eta Athleticen arteko partiduarekin. Bertan izango dira, besteak beste, Zelaia, Diego, Alonso, Zamora, Satrustegi, Lopez Ufarte, Lizeranzu, Sarabia, Argote, Iribar, Urkiaga eta Goikoetxea bezalako jokalariek ospetsuak. Beraien garaian puntako jokalariek izan ziren, Ligak ere irabazi zituzten, eta ziur oraindik ere dohairik badutela futboleko jokatzeko. Hogei minutuko bi zati jokatu dituzte.

Norgehiagoka horren ondoren partidu handia izango da, hots,



Jaialdi bikaina antolatu du Realak Atotxa zaharra agurtzeko. GILLENIA

Jaialdiko programa

- 19.30 Real-Athletic beterranoen arteko partiduaren hasiera.
- 20.15 Beteranoen arteko partiduaren amaiera, ezustekin.
- 20.30 Real-Euskadiko selekzioa arteko partiduaren hasiera.
- 21.15 Atsedena. Jokalariek historikoen agurra.
- 21.30 Bigarren zatia. Parte hartzen duten jokalariek guztiei Ku txia saria banatuko zaie.
- 22.25 Espektakulua, Atotxaren oroimenez.
- 22.35 Donostiako Orfeoiaren ekitaldia.
- 22.45 Atotxako zalegoari omenaldia.

Realaren eta euskal selekzioaren artekoa. Javier Iruretak ekipo polita osatu du eta edizio hau ixteko orduan oraindik ez zen ziurra Barcelonakoek (Zubizarreta, Bakero, Goikoetxea, Begiristain eta Julio Salinas) parte hartuko dutenentz; izan ere, Liga eskuratu, hainbat omenalditara joan beharra dute eta gainera, bihar Barcelonak Lleidaren kontrako neurketa du.

Dena den, Lopetegi, Iturrino eta Herrero (Logroñes), Gonzalo eta Gracia (Lleida), Guerrero, Larrazabal, Urrutia eta Billabona (Athletic), Pizo Gomez (Rayo), Loren (Burgos), Lopez Rekarte (Deportivo), Bustingorri eta Arozarena (Osasuna), Ibañez (Valencia), Patxi Salinas eta Dadi (Celta) eta Barcelonaren ordez etor daitezkeenak maila polita eskaintzeko gai dira.

Beste hainbat gauza ere egongo da gaur Atotxan, koadroan ikus daitezkeenak. Atotxan festa handia egitea da Realaren helburua. Agur gozoa eta ahantzezina eman behar zaio zelai zaharrari. ETB1ek zuzenean eskainiko du gaurko ekitaldia.

Barçak historian lehen aldiz 3 Liga lortu ditu segidan

DONOSTIA

John Cruyffek marka guztiak hautsi ditu Barcelonan. Entrenatzaile holandarrak hirugarren Liga irabazi du jarraian, lehenengo aldiz Kataluniako taldearen historia osoan. Aurretik, hiru aldiz (1947-48 eta 48-49, 51-52 eta 52-53 eta 58-59 eta 59-60) bi Liga lortu zituen.

Ligako azken jardunaldia emozioz bete izan zen. Barcelonak gutxienez Real Madridek baino puntu bat gehiago lortu beharra zuen. Azkenean, Barçak 1-0 irabazi zion Realari eta Real Madridek izugarritzko porrota jaso zuen Tenerife (2-0). Horrela, kataluniarrek puntu bateko alde izan dute sailkapenean. Asko hitz egin da eta hitz egingo da Real Madriden huts egiteari buruz. Barcelonako jokalariek ordea, ez dute horretaz ezer entzun nahi. Andoni Zubizarretaren hitzak nahiko adierazgarriak dira: «Ligak 38 partidu ditu, eta Barcelonak edo Real Madridek irabazi, txapelduna onena izango litzateke».

Gaur, Atotxak jokalaririk mirestuenari agur esango dio.